

## ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Añarbeko beheko kanalaren obrak duen egoerari buruzko MOZIO ARRUNT hau dakar, osoko bilkuran eztabaidatzeko.

## JUSTIFIKAZIOA

Añarbeko presatik Donostialdea urez hornitzea Añarbeko beheko ubidearen alternatiba eraiki eta erabat hondatuta dagoen hodi hori birgaitzeko zain dago.

1960an egina da Añarbeko beheko kanala, jario eta filtrazio ugari du eta erabat hustuta konpondu behar da. Horretarako, alternatiba bat eraiki behar da, Urumea ibaiaren arroa kanal gisa erabiliko lukeena. Horren proiektua orain 20 urte baino gehiago idatzi zen, eta finantzaketa zain dago oraindik ere.

Badakigu Estatuko Administrazioak egingo dituela lanak, interes orokorrekotzat jo eta 2010eko Aurrekontuen Legean jasota geratu baitzen, eta horrek esan nahi du Kantauriko Ur Konfederazioak ordainduko duela lanen % 100.

2018ko udaberrian, Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak jakinarazi zuen Añarbeko beheko ubidearen ordezkua lehiaketara ateratzeko izapideak egiten hasi zela, eta 25 milioi euroan aterako zela.

Jakin dugu, ordea, ez dagoela epe laburrera egiteko aurreikuspenik, Gobernu Zentralak ez duelako bere lehentasunen artean obra hori egitea; eta, horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu berriz ere eskatzea lehenbailehen ekiteko horri. Izan ere, azpiegitura horrek Gipuzkoako 300.000 biztanleri baino gehiagori ematen dio edateko ura (Donostiari, Errenteriarri, Hernaniri, Lasarteri, Pasaiari, Oiarzuni, Urnietari, Lezori, Usurbili eta Astigarragari).

Añarberen beheko ubidea kolapsatuz gero, ordea, 300.000 gipuzkoar baino gehiago ezereen alternatibarik gabe geratuko lirateke beharreneko gauza bat, edateko ura, izateko.

Hori dela eta, hau da gure

## MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udaltzarak Gobernu Zentralari eskatzen dio denen buru jarri eta bultzatzeko Añarberen beheko kanalaren obrak lehenesteko jarduerak, kanalak kolapsatu baino lehen.
2. Donostiako Udaltzarak Gobernu Zentralari eskatzen dio alternatiba bat aurkezteko Donostiak edateko ura izateko Añarberen beheko ubideak kolapsatuko balu.

Donostian, 2021eko irailaren 10ean

Borja Corominas Fisas,  
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea.